

Partaidetzarako lengoia

G

izakia enborra balitz, José Luis, erditik moztuz gero, zuhaitzari nola, gizakiari hala aztertuko genio-

ke ordu arte izandako bizimoduaren berri: gaixotasunak batetik, eta bestetik, arrakastak eta damuak: lorratza uzten duen oker edo atzera egindako pauso andana. Eta bai, erditik moztutako gizaki horren eta bion artean legokeen mundua bat egitea, Ixiar, helburu ederra izanik ere, benetan, zaila suertatzen da; maizenik, estralurtarrak izango bagina bezala, mundu guztiz ezberdinetakoak garela konturatzen baikara.

Ez dut ezkutatu, José Luis, deigarria egin zaidanik zure konfiantza faltaren gaineko ideia. Nik, garai hauetan, konfiantza “eduki” barik, konfiantza “erein” egin behar dela ulertzen dut. Konfiantza edukitzeak norbaitengan edo norbaitzuegan sinestea suposatzen baitu. Eta Ixiarrek esaten zuen bezala, pentsamenduak parte-hartze kritikoa bultzatu behar duenez, parte-hartzea da, lehenik eta behin, sustatu beharrekoa. Ez sinesmena.

Mugimendua eratzearen aldeko aldarria egin diguzu, Ixiar, gero eta indibidualistagoa den gizarte honetan. Pentsatzeari utzi, nolabait esateko, eta akziora bide egitea. Parte hartzera. Parte hartze kritikora. Ez nolana hiko parte hartzera. Ekarriren bat egingo duena, alajaina.

Eta, niri, txuri-beltzeko argazkiak etorri zaizkit burura. Herri osoak parte hartu izaten genueneko gai, jai, asmo, behar eta nahiak lagundutako garaiak. Ezin ahantzizkoak zaizkit *Ez dok amairuren* taularatzeak, “Berrehun mila ez!” lemapean egindako manifestaldiak, Bai Euskarari kanpaina, Intxixu-ren lehen agerraldiak...

DANI BLANCO



Ana Urkiza

Padrón

Rozas

Bai Euskarari kanpaina, Intxixu-ren lehen agerraldiak... edota ikastetxetik euskal kantak ikastera Saturrango seminario zaharrera joan eta han, seme-alaba eta guraso, senitarteko eta lagun, denok batera, parte hartzea nola bizi genuen. Inori ez zitzaion otutzen asteburu haietan deus egin gabe geratzea. Izan ere, denok baikenuen zerbait egiteko, eskaintzeko, esateko, iradokitze... edota ikasteko eta irakasteko.

Gaur, Seminario zahar hartara (existituko balitz) eramango gintuzkeen arazoia falta da. Kritikoak garela esaten dugunean, edota parte-hartze kritikoa bultzatu behar dugula, gure bizipenetik abiatzen gara. Guk egokitzat ikusten dugunetik. Guri funtzionatu zigunetik. Baina parte-hartzea, orain, bali-teke beste modu batera ulertzea. Parte-hartzeari, berari, apika, beste zerbait egitea eskatzen zaio edo eskatu behar genioke. Belaunaldi berriak ez

datoz alferrik. Eta, beraz, gure pentsamendua, ustez sortzailea edota eraikitze asmoz ondua izanda ere, jasotzen dugun erantzuna ikusita, José Luisek aipatzen duen konfiantza faltak eragiten digu, edota atopian murgilduriko bizimodua ageri zaigula iruditzen zaigu, Ixiar.

Gure lengoia egoera berriari egokitu beharra daukagu. Eta pentsamendu kritikoa agertzeaz gain, agitzekotan, Ixiarren deiari jarraiki, egokitu —ez errendizio bezala ulertuta— edota egokitzeko era berriak deskubritu beharrean gaude. Hor behar dugu sortzaileak izan. Sortzaile kritikoa. Eta sinesgarriak. Zu eta bion artean dagoen mundua interesgarri egingo duen moldaketa-lan parte-hartzaile sortzailea. ■